

COLORBRAIN.

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Aurretik aipatu dugunez, bezeroarekin harremanetan jartzeko kanala web gunea izango da. Bertan, produktuak online erosteko aukera egongo da baita gure enpresaren telefono zenbakia eta gurekin harremanetan jartzeko behar diren datuak. Dendako zeozer erosi nahi izanez gero, printzipioz web orrialdean egingo ditugu baina tallekin edo diseinuekin zalantzak izatekotan, aurrez aurrez egiteko aukera hori emango dugu. Eskariak telefonoz nahi ez izanez gero gure korreo helbidea ere izango dugu eskuragarri. Gurekin hitz egin ez gero nahi diren beharrak asetzeko. Lehen esan bezala, salmentak egiteko, online egingo ditugu baina aipatu dugunez, modu presentzian egiteko aukera ere izango dugu Iparraldeko gizarte etxean. Hori gutxi balitz, erosi baino lehen tallak edota materialak aurrez aurrez ikusi eta aukeratzeko aukera emango dugu. Modu horretan, biltegi moduan izango dugu gizarte etxeak emandako gelatxo hori.

Erabiliko dugun beste kanal bat, sare sozialak izango dira. Badakigu gaur egun sare sozialetan gazte eta helduen mugimendu handia dagoela eta mugimendu hori aprobetxatzeko instagram, tiktok eta twitter-en web orrialdeko dendaren esteka jarriko dugu bertatik zuzenean erosteko. Gainera, bideoak eta argazkiak igoko ditugu iragarki giza. Iragarki egiteko, bideoak, argazkiak, dantzak etab igoko ditugu bezeroaren arreta deitzeko. Uste dugu, modu hau erabilita bai Euskal Herri eta Espainia mailara iritsi gaitzkeela.